

ORAIN ETA BETI aldaketaren protagonistak



Genero-berdintasunaren eta
nesken eta emakumeen ahalduzaren alde

 **GARAPEN**
IRAUNKORRERAKO
HELBURUAK



pro:ide



HEZKUNTZA EZ-FORMALA
GAZTEAK/HELDUAK
2019-2020 ikasturtea

SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

lazko kanpainan Garapen Iraunkorrerako Helburuetako lehen biak landu ziren bereziki, pobrezia desagerraraztea eta goserik ez izatea; bada, aurtengo jardueretan, jauzi txiki bat egingo da helburu horietan, eta 5. helburua hartuko da ardatz gisa: "Genero-berdintasuna eta emakumeen eta nesken ahalduzko lortzea". Helburu horrek bost xede biltzen ditu bere baitan, eta, berorren bidez, gure gaurko mundu honetan emakumeek eta neskek jasaten duten egoera bidegabe garrantzitsuenetakoari ahal dugun neurrian gizarte gisa konponbidea bilatzeko egin beharreko bidea seinlatu nahi da; zehazki, helburuaren formulazioak hobetu beharreko bost eremu horietan islatzen du bere funtsa. Ondorengo material honen bidez, helburu horrekin lotutako askotariko gaiak buruz ikuspegi zabalago bat landu nahi da, genero-indarkeriari eta laneko eta hezkuntzako arrakalari erreparatuz bereziki.

HELBURU OROKORRA

Ikasleak sentsibilizatzea eta motibatzea, gaur egun oraindik emakumeek eta neskek mundu osoan bizi duten desoreka-egoerari aurre egiteko, eta egoera hori agerian jartzea, haien bizi-baldintzak hobetzeko.

HELBURU ESPEZIFIKOAK

- Munduan emakumeek bizi dituzten desorekak ezagutzea, batez ere genero-indarkeriari eta hezkuntzako eta lan-munduko arrakalei begira.
- Emakumearen egoeran mundu osoan azken urteotan egin diren aurrerapenak balioestea.
- Garapen Iraunkorrerako Helburuak zer diren aztertzea, eta mundu osoan emakumeak bizi duen egoeraz zer planteatzen duten jakitea.
- GIHen aurrerapenean laguntzeko konpromisoa hartzea, batez ere 5. helburuari begira.
- Konpromisoa hartuta jardungo duten gazteak prestatzea, hots, munduan alderdi askotan emakumeek oraindik bizi dituzten bidegabekeriazko egoerak eta berdintasunik eza ezabatzen lagunduko duten herritarrak hezteak.

TENPORALIZAZIOA

Saio bat (ordu bat eta 20 minutukoak), edo bi saio (40 minutukoak). Bada jarduera bat, 0. jarduera, aukerakoa, 20 bat minutu eskatuko dituena.



HEZKUNTZA EZ-FORMALA GAZTEAK/HELDUAK

2019-2020 IKASTURTEA

BEHAR DEN MATERIALA

- Interneteko konexioa duen ordenagailua
- Gailu mugikorrak
- Bolalumak eta papera

METODOLOGIA

Honako saio honetan, sustatu nahi den prozesuarekin lotutako hiru alderdi hauei erantzun nahi zaie: errealitateari buruzko informazioa aurkeztea, gogoeta sustatzea eta zerbait egitera bultzatzea. Kasu honetan, gazteak beren ikaskuntzaren protagonista bihurtu daitezke, zer errealitatearen gainean lan egin nahi den jabetu ondoren ikerketa beraiek egiteko proposamena egin dugu, eta, horretarako, gida bat ematen zaie material hauen bidez, sakondu nahi den gai horiez. Horien bidez, ekintza-proposamena beren inguruan zabaldu ahal izango dute horrela.

0. JARDUERA. KANPAINAREN BIDEOA (AUKERAKOA)

AURREIKUSITAKO DENBORA: 20 minutu

Bideoa ikusi ondoren, lantzen diren gai horiei buruzko gogoeta egin behar dute: zer den feminismoa eta zer matxismoa, desparekotasuna, laneko arrakala, mikromatxismoak, hizkuntza sexista, publizitatean, zinean edo bideojokoetan ageri diren rolak eta estereotipoak, genero-indarkeria, etab.

Bideoa ikusi ondoren, jarduera honetan parte hartzen ari direnak taldeetan bana daitezke, eta arreta gehien erakarri dien horretaz eztabaida dezakete. Bideo horretako hiru ideia esaldi batean laburbildu behar ditu bakoitzak. Irakurri haurretik, galdera hauen inguruan hitz egin dezakete:

- Zer iruditu zaigu bideoa?
- Nola sentitu gara bideoa ikustean?
- Azaldu diren gai horiei buruz desberdin pentsatzen eta sentitzen dugu orain?

1. JARDUERA: ATZERA BEGIRA

AURREIKUSITAKO DENBORA: 20 minutu

Jarduerari ekin aurretik, jarduera dinamizatuko duen pertsonak, lehenengo, Milurteko Garapen Helburuak (MGH) zer izan ziren azalduko du labur-labur. Helburu horietatik hirugarrenak zer zioen ekarriko dugu gogora: "Generoen arteko berdintasuna eta emakumearen autonomia sustatzea".



HEZKUNTZA EZ-FORMALA GAZTEAK/HELDUAK

2019-2020 IKASTURTEA

<http://onu.org.pe/los-odm-en-el-peru/promover-la-igualdad-entre-los-generosa-y-la-autonomia-de-la-mujer/>

Ondoren, taldetan bilduko dira, eta MGHen lorpena "balioetsi" beharko dutela azalduko zaie, bereziki, hirugarren helburuarena. Horretarako, helburu hori bete ote den edo zenbateraino bete den zehazten lagunduko dien informazioa bilatzeko, Interneten begiratuko dute hamar minutuz. Orrialde hauen berri eman diezaiekegu, orientabide gisa:

https://www.undp.org/content/undp/es/home/sdgooverview/mdg_goals/mdg3/

https://www.undp.org/content/dam/undp/library/MDG/spanish/UNDP_MDG_Report_2015.pdf

Ikerketaren ostean, helburua bete den edo ez azaldu beharko dute, eta beren balioespena edo iritzia emango dute horretaz (esate baterako, zer mailatan bete den azaltzeko, 1etik 10era puntua dezakete); norberak zer hobekuntza-proposamen egingo zituen ere pentsatuko dute.

2. JARDUERA: HOBETU BEHARRA DUGU

AURREIKUSITAKO DENBORA: 30 minutu

Ondoren, antzeko ikerketa bat egingo dute, baina Garapen Iraunkorrerako Helburuez eta, zehazki, 5. helburuaz. MGHetan eta GIHetan emakumeen arloan zer xede zehaztu ziren aztertuko dute, biak konparatuz; bien arteko aldeak balioetsiko dituzte, eta aurreko kalifikazio horretatik zer aldatu behar luketen zehaztuko dute.

Gero GIHa bidean aurrera nola doazen balioets dezaten, hiru herrialdeko multzoak egin eta Garapen Iraunkorrerako 5. Helburua betetzeari dagokionez zer aurrerabide egin dituzten bilatzeko eta aztertzeko proposa diezaiekegu (ahal bada, kanpainako hiru ardatz nagusiei erreparatuta). Orrialde hau bisita dezakete, herrialde guztiei buruzko informazioa biltzen baitu:

<https://www.sdgindex.org/assets/files/2018/01%20SDGS%20GLOBAL%20EDITION%20WEB%20V9%20180718.pdf>

HERRIALDEAK (alda daitezke, parte-hartzaileek nahi badute)

- Espainia
- Bolivia
- India
- Kongo (DR)
- Egipto
- Errumania
- Errusia



HEZKUNTZA EZ-FORMALA GAZTEAK/HELDUAK

2019-2020 IKASTURTEA

- Estatu Batuak
- Frantzia
- Txina
- Nigeria
- Bangladesh

Gero, errealitatera itzuliko gara berriro pixkana; Interneten begiratzeko esango diegu, eta ea herrialde bakoitzean GIH horren ebaluaziorako emandako kalifikazioa egia den erakusten duten berrien adibideak bilatzeko; horrez gain, semaforo bat balute bezala (kolore gorriaren, berdearen eta horiaren bidez), bilatutako berriek atzerapena, aurrerapena edo egoera berean jarraitzea adierazten duten esango dute. Batik bat zenbait errealitateri erreparatzeko eskatuko zaie: berdintasunik eza, genero-indarkeria, laneko arrakala, hezkuntzako arrakala, etab.

Amaitzeko, herrialde bakoitzari buruz atera dituzten ondorioak azalduko dizkiete besteei, eta herrialdeen izenak eta berrien adibideak eskegiko dituzte horman, beren balioespenarekin; horrela, konparaziozko mapa bat osatuko dute, egiteko dagoena azaleratzeko.

3. JARDUERA: GUK ERE BADUGU ZER ESANIK

AURREIKUSITAKO DENBORA: 20 minutu

Egindakoa bateratu ostean, planteamendu bat egingo zaie: GIHetako 5. helburuaren alderdi askotan aurrerapenik egin ez denez, horren ardura nork duen bilatu behar dute. Honako bideo hau proiektatuko da, eta parte-hartzaileei eskatuko zaie transmititzen dietena azaltzeko besteei:

<https://www.youtube.com/watch?v=gl2AO-7Vlzk>

Gero, desoreken aurkako borrokan aurrerapenen falta sumatzen dela jabetuta, egoera horren arduradunak beren ustez zein diren eztabaidatuko dute, eta guk zer egin dezakegun planteatuko dugu.

Talde bakoitzak konpromiso desberdin eta original bat hartuko du.



HEZKUNTZA EZ-FORMALA GAZTEAK/HELDUAK

2019-2020 IKASTURTEA

JARDUERAREN EBALUAZIOA(AUKERAKOA)

Jarduera ebaluatu nahi bada, ikasleen parte-hartzeari eta inplikazioari erreparatzea proposatzen dugu, hiru item hauetatik abiatuta:

ITEMAK	Bikain	Oso ondo	Ondo	Nahikoa	Gutxiegia
Jokabide egokia izan al du bai banaka ari zenean eta bai talde-lanean?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Interesik erakutsi al du jardueretan?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Parte hartu al du jardueretan?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

